A) Características del programa presentado (máximo 30 puntos):

- Calidad e interés del programa presentado: concreción y detalle, calendarización... (máx. 10 puntos).
- Actividad continuada a lo largo del año (máx. 10 puntos).
- Presupuesto ajustado a la subvención solicitada (máx. 10 puntos).

B) Características de la entidad solicitante (máximo 20 puntos):

- Colaboración con el Ayuntamiento de Eibar, a lo largo de los años de funcionamiento (máx. 10 puntos).
- Sede o centro de reunión de la Asociación en el municipio de Eibar (máx. 10 puntos).

Será necesario conseguir una puntuación mínima de 30 puntos para la obtención de la subvención.



Balorazio-batzordeak eskaerak puntuazioen arabera ordenatuko ditu, eta bere txostenean jasoko du, batetik, zein eskatzaile proposatzen dituen onuradun izateko, eta, bestetik, dirulaguntza eman ez zaien eskatzaile guztien zerrenda, dela gutxieneko puntuazioa lortu ez dutelako, dela aukeratutakoek baino puntuazio baxuagoa lortuta deialdiaren gehieneko zenbatekoan sartzerik ez dutelako.

Dirulaguntzak adjudikatu ondoren aurrekontuaren zati bat geratuko balitz, eta hori nahikoa ez balitz aurrekontu nahikoa izanez gero dirulaguntza lortuko zukeen Elkartearen jardueraren aurrekontua oso-osorik estaltzeko, zati edo gordekin hori ordaindu ahal izango zaio elkarte horri, baldin eta Elkartek jarduera bere proposamenean jasotako baldintzetan egiteko konpromisoa hartzen badu.

Dirulaguntzarik jaso ez duten eskatzaileak itxarote-zerrendan geratuko dira, badaezpada ere, emandako dirulaguntzaren bat bertan behera uzten bada uko egin diotelako, betiere, kreditu nahikoa askatzen bada onartu ez den eskaera bati gutxienez erantzuteko.

Azkenean ematen den dirulaguntza "oroharreko prezioztat" joko da, eta onuradunaren kontura geratuko da diruz lagundutako jarduera osorik egiteko behar den finantzaketa-aldea.

Hamahirugarrena: Onuradunak duen epea eta modua, dirulaguntzaren helburua bete duela eta jasotako funtsak erabili dituela justifikatzeko.

2026ko abenduaren 31n amaituko da jarduera egiteko edo funtsak erabiltzeko epea.

Elkarte onuradunak **2027ko otsailaren 26ra** arteko epea izango du dirulaguntzaren xedea bete duela eta jasotako funtsak erabili dituela justifikatzeko.

La Comisión de Valoración ordenará las solicitudes en función de la puntuación obtenida e incluirá en su informe, además de los/as solicitantes a los/as que se propone como beneficiarios/as, una relación de solicitantes, a los/as que no se les concede subvención por no haber alcanzado la puntuación mínima requerida o por ser inferior su puntuación a la de los/as seleccionados/as y no tener cabida en la cuantía máxima convocada.

En el caso de que una vez adjudicadas las subvenciones quedara un resto del presupuesto que no cubriese la totalidad del presupuesto de la actividad de la Asociación a la que, de haber habido presupuesto, le hubiese correspondido la subvención, se podrá abonar a esa asociación ese resto, siempre que se comprometa a la realización de la actividad en los términos indicados en su propuesta.

Los/as solicitantes que no hayan obtenido subvención quedarán en lista de espera para el caso de que alguna de las subvenciones concedidas quede sin efecto por renuncia, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas.

La subvención finalmente concedida tendrá el carácter de "a tanto alzado", y se entenderá que queda de cuenta del beneficiario/a la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada.

Decimotercero: Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos

El plazo para la realización de la actividad o aplicación de los fondos finalizará **el 31 de diciembre de 2026**.

El plazo de justificación por parte de la asociación beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos finalizará **el 26 de febrero de 2027**.



Azken justifikazioa JUSTIFIKAZIO KONTUA modalitatearen bidez egingo da, eta **elektronikoki** aurkeztuko da udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTU** prozeduraren bidez (www.eibar.eus).

Hauxe da elektronikoki aurkeztu behar den dokumentazioa, azken justifikazioa egiteko:

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena, GI3002_D006 ereduaren arabera (udal webgunean www.eibar.eus eskuragarri), behar bezala beteta eta entitate onuradunak sinatuta.

Memorian bakar-bakarrik Eibarren egin edo/eta hasi diren jarduerak jasoko dira.

Ez da onartuko elkartearen justifikazio-memoria orokorra aurkeztea. Memoria Eibarko Udalak diruz lagundutako jarduerara mugatu beharko da.

- b) Dirulaguntzari egotzitako gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sailkatua, GI3002_D007 ereduaren arabera (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri). Gastuen eta diru-sarreraren zerrenda formatu editagarrian aurkeztu beharko da. Diru-sarrerek eta gastuek bat etorri behar dute.

- c) Fakturak edo froga-balio baliokidea duten ordezkio dokumentuak, trafiko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, egindako gastua egiaztatzen dutenak, ordainketa-egiaztagiriekin batera, GASTUEN ETA DIRU-SARREREN ZERRENDAN (GI3002_D007) emandako ordenaz-bakiaren arabera korrelatiboki ordenatuta. Gastu berari dagozkion fakturen artxiboek GASTUEN ETA SARREREN ZERRENDAN (GI3002_D007) adierazitako ordenaz-bakiarekin izendatuta egon behar dute.

- Banku-transferentzia bidez egin beharko dira 400 euro edo hortik gorako ordainketa guztiak.

La forma de justificación final será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA, y se presentará **electrónicamente** a través del procedimiento de **PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN** de la página web municipal, www.eibar.eus.

Esta es la documentación a presentar electrónicamente para la justificación final:

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, según modelo GI3002_D006 (disponible en la página web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentada y firmada por el/la entidad beneficiaria de la subvención.

En la memoria únicamente se incluirán las actividades realizadas y/o iniciadas en Eibar.

No se admitirá la presentación de una memoria justificativa global de la asociación. La memoria deberá ceñirse a la actividad subvencionada por el Ayuntamiento de Eibar.

- b) Una relación clasificada de los gastos e ingresos imputados a la subvención según modelo GI3002_D007 (disponible en la web municipal, www.eibar.eus). Esta relación clasificada de gastos e ingresos deberá aportarse en formato editable. Los ingresos y gastos deben coincidir.

- c) Facturas o documentos sustitutivos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico o con eficacia administrativa acreditativos del gasto realizado, junto con los justificantes de pago, ordenados correlativamente según el número de orden asignado en la RELACIÓN DE GASTOS E INGRESOS (GI3002_D007). Los archivos relativos a facturas pertenecientes a un mismo gasto deben estar nombrados con el número de orden señalado en la RELACIÓN DE GASTOS E INGRESOS (GI3002_D007).

- Será obligatorio realizar por transferencia bancaria todos los pagos por importe igual o superior a 400 euros.



- 400 eurotik beherako eskudiruzko ordainketak baino ez dira onartuko. Hornitzailearen ordainagiria aurkeztuz egiaztatuko dira, behar bezala sinatuta, ordainketa egiten duen subjektu zorduna eta gastuaren kontzeptua identifikatuta. Hornitzaile berari egindako ordainketak ezin izango dira zatikatu murrizketa hori saihesteko.
 - Únicamente se admitirán pagos en efectivo por importe inferior a 400 euros. Se justificarán mediante la presentación del documento acreditativo del recibo del proveedor, debidamente firmado, con identificación del sujeto deudor que efectúa el pago y el concepto del gasto. No podrán fraccionarse los pagos a un mismo proveedor para evitar esta restricción.
- d) Elkartearen egoitza Eibarren ez badago, pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dion zeharkako kostuen aitortpena, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian, eta benetako egozpena ezin izango da deialdian ezarritako ehunekoa baino handiagoa izan, udalaren webgunean eskuragarri dagoen GI3002_D008 ereduaren arabera (www.eibar.eus), behar bezala beteta eta dirulaguntzaren erakunde onuradunak sinatuta. Zeharkako kostuak edo gastu orokorrak ez dira dokumentu bidez justifikatu beharko, baina zenbateko osoa GASTUEN ETA DIRU-SARREREN ZERRENDAN (GI3002_D007) islatu beharko da.
- d) En caso de que la sede de la asociación no se encuentre ubicada en Eibar, declaración de costes indirectos que la persona o entidad beneficiaria imputa a la actividad subvencionada en la parte que corresponda de acuerdo con los principios y normas de contabilidad generalmente admitidos, sin que la imputación efectiva pueda ser superior al porcentaje establecido en la convocatoria, según modelo GI3002_D008 disponible en la web municipal, www.eibar.eus debidamente cumplimentada y firmada por la entidad beneficiaria de la subvención. Los costes indirectos o gastos generales no requerirán justificación documental, pero sí habrán de reflejarse por el importe total en la RELACIÓN DE GASTOS E INGRESOS (GI3002_D007).
- e) Elkartearen egoitza Eibarren badago eta egoitzaren alokairu-gastuak justifikatu badira, Elkartearen izenean dagoen alokairu-kontratua.
- e) En caso de que la sede de la asociación se encuentre ubicada en Eibar, y se hayan justificado gastos de alquiler de la sede, contrato de alquiler a nombre de la Asociación.
- f) Pertsonal gastuak justifikatzeko, langileen dedikazio-denbora errealari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, GI3002_D009 ereduaren arabera (udalaren webgunean eskuragarri, www.eibar.eus), behar bezala beteta eta dirulaguntzaren erakunde onuradunak sinatuta. Aurkeztutako justifikazioa ez baletor bat aurretiazko memorian jasotako hasierako aurreikuspenarekin, alde hori eragin duten arrazoiak justifikatu beharko dira dirulaguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duen jarduera-memorian (GI3002_D006 eredu).
- f) En caso de gastos de personal, declaración responsable sobre el tiempo de dedicación real del personal según modelo GI3002_D009, disponible en la web municipal, www.eibar.eus debidamente cumplimentada y firmada por la entidad beneficiaria de la subvención. En caso de que la justificación presentada no corresponda con la previsión inicial recogida en la memoria previa, deberán justificarse las causas que hayan originado dicha diferencia en la memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención (modelo GI3002_D006).



Langileen gastuen zenbateko osoa, Gizarte Segurantzaren barne, GASTUEN ETA DIRU-SARREREN ZERRENDAN (GI3002_D007) jaso beharko da.

Honako hauek erantsi beharko dira: lan kontratuak, nominak, Langileen Izen-Zerrenda (LZI), erakunde onuradunaren kargurako Kotizazioen Likidazio-Zerrenda (KLO) eta dagozkien ordainagiriak. Era berean, PFEZ atxikipenen 110 hiruhileroko ereduak aurkeztuko dira, eta dirulaguntza hamar hilabetetik gorakoa bada, baita urteko PFEZaren 190 eredu ere, dagozkien ordainagiriekin batera.

g) Jarduerak garatzeko hornidura, obrak edo zerbitzuak kontratatu badira eta diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe) bada hornidura-eta zerbitzu kontratuaren, edo 40.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe) obra-kontratuaren, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza. Honako kasu hauetan: a) kontratuaren objektuaren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituen behar besteko erakunderik ez dagoenean, b) gastua dirulaguntza eman aurretik egin denean edo/eta c) aurkeztutako eskaintzen artean proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratu ez denean, salbuespen horiek justifikatzen dituen dokumentua.

h) Zerga Gipuzkoatik, Bizkaitik edo Arabatik kanpoko lurralde historikoetan ordaindu behar izanez gero, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Hamalargarrena: Dirulaguntzaren zabalkundea eta dirulaguntza emateko baldintzak.

a) Dirulaguntzaren zabalkundea.

Eibarko Udalak diruz lagundu duela agerian utzi behar du entitateak, leku nabarmenean, diruz lagundutako jardueren publizitate guztian.

El importe total de gastos de personal, incluyendo la Seguridad Social deberá de reflejarse en la RELACIÓN DE GASTOS E INGRESOS (GI3002_D007).

Se deberán adjuntar los contratos de trabajo, las nóminas, la Relación Nominal de Trabajadores (RNT), la Relación de Liquidación de Cotizaciones (RLC) a cargo de la entidad beneficiaria, con sus correspondientes justificantes de pago. Así mismo se aportarán los modelos 110 trimestrales de retenciones IRPF y si la subvención es de ejecución superior a diez meses también el modelo 190 de IRPF anual con sus correspondientes justificantes de pago.

g) En el caso de que se hayan contratado suministros, obras o servicios para el desarrollo de las actividades y el importe del gasto subvencionable supere 15.000 € (IVA excluido) para los contratos de suministro y servicios, o 40.000 € (IVA excluido) para los contratos de obras, tres ofertas de diferentes proveedores. En los siguientes casos a) que por las especiales características del objeto del contrato no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, b) que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la concesión de la subvención y c) que la elección entre las ofertas presentadas no haya recaído en la propuesta económica más ventajosa, documento en el que se justifiquen dichas excepciones.

h) Certificación acreditativa de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias en caso de tributar en Territorios Históricos diferentes a Gipuzkoa, Bizkaia o Álava.

Decimocuarto: Difusión de la subvención y condiciones de otorgamiento.

a) Difusión de la subvención.

En toda publicidad que de las actividades subvencionadas se realice, deberá la entidad hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Eibar en un lugar preferente.

b) Dirulaguntza emateko baldintzak.

Diruz lagundutako jarduera guztietan beteko dira 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea, eta 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

Zabalkundea, ahozkoa zein idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo da. Ez da erabiliko, ez hizkera sexistarik, ez estereotipo sexistak erakusten duen irudirik, ezta jatorriagatik diskriminatzaileak direnak ere.

Ekitaldi publikoetan, antolatzaileen mintzaldiak –aurkezpenak, hasierako hitzak, agurrak, abisuak...— ahal den neurrian euskaraz egingo dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Euskaldunei zuzendutako ekitaldietan euskara erabiliko da. Ez da erabiliko, ez hizkera sexistarik, ez estereotipo sexistak erakusten duen irudirik. Era berean, ez dira erabiliko jatorriaren arabera estereotipo diskriminatzaileak aurkezten dituzten hizkuntza edo irudiak.

Antolatzen diren jardueretako batzuk euskaraz egitea bultzatuko da, beti ere kontuan hartuta hartzaileen euskara gaitasuna.

Entitate eskatzaileak Euskara Zerbitzura jo ahalko du testuak itzultzeko eta zuzentzeko, betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betez gero.

Hamabosgarrena: Bateragarritasuna edo bateragarritasun eza helburu berberarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.

Dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako

b) Condiciones de otorgamiento.

En todas las actividades subvencionadas se cumplirá la Ley 10/82, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera y el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi.

La propaganda, tanto oral como escrita, se hará en euskera o en euskera y castellano. No se utilizará ni lenguaje sexista ni imágenes que muestren estereotipos sexistas ni discriminatorias por razón de origen.

En los actos públicos las intervenciones de los/as organizadores/as (presentaciones, introducción, saludos, avisos...) se harán en lo posible en euskera o en euskera y castellano. Las dirigidas al colectivo vascoparlante serán en euskera. No se utilizará ni lenguaje sexista ni imágenes que muestren estereotipos sexistas. Tampoco se utilizará ni lenguaje ni imágenes que muestren estereotipos discriminatorios por razón de origen.

Se promoverá que algunas de las actividades que se organicen se realicen en euskera, teniendo en cuenta la competencia lingüística de las personas destinatarias.

La entidad solicitante podrá acudir al Servicio de Euskera para traducir o corregir textos, siempre que se cumplan las condiciones y características del servicio.

Decimoquinto: Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales.



Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.

Hamaseigarrena: Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, justifikazioa aurkeztu eta egiaztatu ondoren.

Hamazazpigarrena: Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, berrazterketa-errekurtsoa jar daiteke ebazpena eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, 2 hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, (Atotxako Justizia Epaitegian, Teresa Kalkutakoaren plaza 1).

Hamazortzigarrena: Jasotzaileak bere ekimenez dirulaguntzak itzultzeko dauzkan bideak.

Dirulaguntza jaso duen elkarteren batek, arrazoia edozein dela ere, bere borondatez hura itzuli nahi badu, osorik zein zati bat, udal Diruzaintzaren bulegoetan egingo du, dagokion ordainketa-gutunaren bidez. Agiri horretan jasoko dira diru-sarrera egiten duen jasotzailearen datuak eta ordainketari dagokion dirulaguntza emateko ebazpena identifikatzea ahalbidetzen duten datuak. Ordainketa-gutun hori dirulaguntza eman zuen organoari helaraziko zaio justifikatzeko epea amaitu baino lehen.

Hemeretzigarrena: Datu pertsonalen babesa.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Decimosexto: Pago de la subvención.

El pago de la subvención se efectuará en un único pago tras la presentación y comprobación de la justificación.

Decimoséptimo: Indicación de si la resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución pone fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la resolución, o interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de 2 meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, con sede en el Palacio de Justicia de Atotxa, sito en la Plaza Teresa de Calcuta nº 1.

Decimooctavo: Medios disponibles para devoluciones a iniciativa de el/la perceptor/a.

El/la beneficiario/a que voluntariamente decida proceder a la devolución total o parcial de la subvención, cualquiera que sea la causa, deberá hacerlo en las oficinas de la Tesorería municipal mediante la correspondiente carta de pago en la que se harán constar en todo caso los datos del perceptor/a que realiza el ingreso y los que permitan identificar la resolución de concesión que dio lugar al pago. Dicha carta de pago se hará llegar al órgano concedente antes de la finalización del plazo de justificación.

Decimonoveno: Protección de datos de carácter personal.

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación.



Datu pertsonalen tratamenduak Udalak pertsona fisikoei, elkarteei eta erakundeei emandako laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzeko behar den informazio pertsonala kudeatzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikuluen a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Kontuhartzailatza Saila (Kontratazioen eta Dirulaguntzen Unitatea).
Telefonoa: 943- 70 84 09.
Emaila: kontrata@eibar.eus

Eskubideak: Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubideak daude; horretarako idazki bat egin behar zaio Eibarko Udaleko tratamenduaren arduradunari, honako helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de gestionar la información personal necesaria para la tramitación de ayudas y subvenciones concedidas por el Ayuntamiento a personas físicas, asociaciones y entidades, en base al consentimiento otorgado por la persona interesada y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Responsable del tratamiento: Área de Intervención (Unidad de Contratación y Subvenciones) del Ayuntamiento de Eibar.
Teléfono 943- 70 84 09.
Email: kontrata@eibar.eus

Derechos: Le recordamos que existen los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de sus datos, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar a la siguiente dirección: Untzaga plaza 1 – 20.600 Eibar (Gipuzkoa), con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.